

# MARGOLARITZA

Edertiaren edestia idatzi dogu,naikoa labur,baiña gaia zabalegia izan dalako gauza asko eta asko ezin agertu izan dira.

Orain asten dogun lan-zerrenda onetan margolarien edo pintoreen edestia agertuko dogu.

Margo izen au kolorea adierazteko oraintsu sartu da Euskalerrira, Azke'ren iztegia ikusten dan lez,baiña bearezko itza da eta izan daitela ondo etorria.

Zer da ba, margolaritza?

Irudiak egiteko bidea da baiña ez arrian, beste era bate-ra baiño.

Margo-lanak egiteko ura margotu lei eta ur margotua-gaz ola edo ormea eta orreri esango dautsagu akuarela eta ur-margo-lana.

Edo orioa margotu lei,eta orreri esango dautsagu oleo-margoa

Edo orma baten gaiñean estukoa edo zerbait biguna zabaltzen ba'dogu eta ori margotu,orreri umel-margoa esango dautsagu,erderazko "fresko".

Edo buztin-lana margoz apaintzen ba'dogu orreri apai-garria edo dekoratibo esango dautsagu.

Baiña buztin-zati txikiak artu eta bakoitxari margo bat ezarri eta zatitxu orreikaz margodun irudia egiten ba'dogu, "opus musivum" edo mosaikoa izango da.

Eta,azkenez,margodun ariak bear dan lez alkartuta euna josten ba'dogu,ori margodun euna edo "tapiz" izan-go da.

Dana labur agertzeko,margolaritza margoak bide dira-la,norberaren trebetasuna agertzeko bidea da.

## ARTZULOETAN

Margolarien eder-langintza oso antxiñakoa dogu.

Arrizar edo paleolitiko aldian, gure aurretiko Kromag-non gizona otzaren aurka babesa aurkitzeko kobetan bizi zan gizaldi luzeetan, margolari trebe agertzen da, naiz Santimamiñe'n naiz Altamira'n naiz beste toki askotan.

Gerotxuago, eta ez ain asko,sortaldeko margolaritza sortu zan, au be aizpeetan, artzuloetan.

Baiña alde aundia dago margolaritza-era bi onein artean:

Iparraldekoan ez da ia iñoz gizakirik agertzen,erti gel-dia da,eta sortaldekoan, osteras asko agertzen dira gizakiak eta beti ibiltzen,eizan esaterako. Gaiñera iparraldekoa gau-zatia edo realista da eta sortaldekoa eskematikua.

Irudi oneik artzuloko bazterretan, sakonean agertzen dira eta orretarako zioa, magia edo sorginkeria ei zan.Or-piztia zauritu ezkerro, kanpoan errez arrapatuko da, orre-gaitik arrak baiño ez dira agertzen zaurituta, urritu ez dai-tezan.

Ez dakigu ziur zelako margoa erabilten eben,baiña bai gaurkoak baiña iraunkorragoa zala. Arraiñen gorputzeko uragaz-edo, antza.

## ARRI BARRI ETA ERRI ZARRAK

Arribarri edo neolitiko aldian ez da agertu margo-lanik, esmalteak eta estuko margotuak zerbait keltan den-poretan

Ejipto'n: Ejiptoarrak onak ziran arrizko irudiak egiten baiña margotzen lan gitxi egin eben, apaingarriak baiño ez.

Illobiak dira lurralde ta sasoi aretako ederti-lekuak eta or agertzen dira apaingarri lez dantzak, lurgintza-lanak, erelejiño-gaiak(illen liburuan esaterako) illaren argazkiak illarri-gaiñean...

Mesopotamia'n: Buztin margotua eta ebagiak eginda agertzen da asko, K.a.VIII gizaldian,esaterako edontzia-ren gaiñean auntza.

Persia'n: Buztin leiartua baiño ez.

Asia txikia'n: Ititak margo-lanik ez dauke baiña relie-be ederrak asko.

Lur-arte itxaso-inguruan: Inguru onetan erri asko bizi izan dira.

Feniziarrek gauza askotan ziran trebeak,itxas-ontzigin-tzan, dirua irarten eta,batez be idazten,baiña ez dauke eze-lako margo-lanik.

Israel erriak irudiak egitea galazota eukan.

Kreta'tarrak eta mizeniko erti-zaleak batez be freskoak edo orma bigunetan margazkiak egiten ebezan ugari eta or agertzen dabezan irudiak landarak, piztiak eta onein artean izurdeak (delfin) dira, kirolak be bai eta erlejiño-giroko ibilbideak be bai.

Estukoan margo-lanak egiten be onak dira ,oletan eta marmoletan edo artzurietan be bai, baiña buztin-lanetan edo zeramikan dira nagusi, batez be landarak eta piztiak agertzen dira.

Akeo'tarrak dira urrengoak,grekoan aurrekoak, eta ez dauke margo-lanik baiña bai buztin-lanak, oneitan maixu dira.

**Olazar'tar Martin'ek**